

Bakarkako lana da, baina inoiz edo behin...

Irakurleen klubak dira batzuk, txokoak besteak, edo tarteak... Ez dira berdinak funtzionatzeko eran ere. Baina denek dute xedetzat liburuen irakurketan oinarritutako solasari lekua ematea

Juan Luis Zabala

Bizitza bakarkako lana da; baina inoiz edo behin, binaka jartzen gara argazkiarendako, Jon Iriberriren (Gerardo Markuleta) poema batek dioenez. Irakurketa ere bakarkako lana da, baina inoiz edo behin irakurleak bakarkako esperientzia hori partekatu nahi izaten du beste irakurle batzuekin; eta, ahal izanez gero, baita irakurri duenaren egile den idazlearekin ere. Horretarako aukera eskaintzen dute irakurleen txoko, klub edo tarteak. Ez dira gutxi euskal literaturari erreparatzen diotenak. Urteetan sendotuta daude batzuk, Berbaizu Euskara Elkartek Deustuan eta Euskarabilla elkarteak Basaurin duela bost urte abian jarritakoak, adibidez, dagoeneko idazle askok ezagututakoak. Beste batzuk, hasi berriagoak, indarra hartzen ari dira. Ez daude denak modu berean antolatuta, baina denek dute irakurketak eta literaturzaletasuna partekatuz elkar aberasteko guneak izateko xedea.

Aldez aurretik erabaki eta iragarritako liburu baten inguruko solasaldi edo tertulia saioak egiten dituzte irakurleen txoko, klub edo tarteak, eta saio horietara joaten direnek irakurria izan ohi dute hautatutako liburua. Bada, hala ere, ezberdintasunik batzuen eta besteen saioen artean: batetik, kasu gehienetan liburuaren egilea saioan izaten da, baina ez guztietan; bestetik, batzuek ez dute saioa gidatzeko moderatzailerik, eta beste batzuek idazle bat dute saioaren gidari. Hiru adibide aski ezagun dira honako hauek: Julen Gabiriak aurkezten eta zuzentzen ditu Asapala elkarteak antolatutako Irakurleen Tarteak, Txurdinagan (Bilbo); Harkaitz Canok Donostia Kulturaren literatur solasaldiak zuzentzen eta moderatzen ditu; eta Iban Zalduak lan hori bera egiten du Geu Gasteiz elkarteak Gasteizen antolatutako solasaldietan eta Arrasateko Udal Liburutegian egiten direnetan.

Zaldua, Cano nahiz Gabiriarentzat, hirurontzat da oso lan atsegin eta aberasgarria irakurleen solasaldietan egiten dutena. Zeregin horrek liburu interesgarrien berrirakurketara behartzen dituelako, eta baita solasaldietan liburu horiei buruzko beste ikuspuntu batzuen berri izateko aukera izaten dutelako ere.

Saioetan, nire helburua izaten da neuk ahalik eta gutxien hitz egitea, dio Iban Zalduak. Eztabaida baldin badago, eta gidatu beharra dagoela ikusten baldin badut, orduan parte hartzen dut, baina bestela saiatzen naiz isilik egoten. Bere saioetako liburuak Zalduak berak aukeratzen ditu, lau irizpide jarraituta: genero guztietako liburuak aukeratzen saiatzen da; euskaraz sortutakoak bezala euskaratutakoak, kopuru bertsuan; arazorik gabe

aukeratzen ditu berriak ez diren liburuak; eta ardatza liburua da beti, eta ez egilea.

Liburu berriagoak hautatu ohi ditu Canok bere saioetarako, baina gainerakoan Zalduaren oso antzera jokatzen du: Estimaten ditut parte-hartzaileen proposamenak, baina neuk aukeratzen ditut azkenean liburuak. Saiakera eta antzerki arloko liburu gutxi aukeratu ditut, baina saiatzen naiz genero ezberdinetako liburuetara jotzen. Bestalde, gero eta sarriago jotzen ari naiz itzulpenetara, ikusi baitut oso erantzun ona dutela.

NOBELA, MANEIAGARRIAGOA. Zalduak nahiz Canok, biek aitortzen dute hala ere errazagoa dela nobelari buruzko saioa egitea. Nobelan, istorio bat eta pertsonaia batzuk dituzu, eta aukera gehiago ematen dizu horrek ordu eta erdi solasean emateko, maneiagarriagoa da nobela honelako saioetarako, azaldu du Canok.

Gabiriak Asapala elkarteko bi kiderekin batera egiten du hautaketa. Ez dituzte erabat baztertzen narratibaz landako liburuak, eta tarteka horien aldeko apustua egin izan dute. Oreka bat lortu behar da. Jendeari eskatzen duena eman behar zaio, baina kalitatea bilatzen ahaleginduta.

Idazlea saioan izateari interesgarria eta lagungarria irizten dio Zalduak, baina ez inondik ere funtsezkoa. Horregatik, Gasteiz eta Arrasateko saioetan egilea, joaten denean, ez da sartzen lehenengo hiru ordu laurdenak pasatu artean. Horrek taldean liburuaz nahiko modu askean hitz egiteko aukera ematen du, egilea sartu aurretik. Idazlea izatea interesgarria da, baina jendeak lasaia ematen du iritzia idazlea aurrean ez bada, hitz egiteko libreago sentitzen da, dio, Zalduarekin bat, Canok.

Gabiriak zuzentzen dituen saioetan, beti dago idazlea, halakoxea baita saioen formatua. Idazlea aurkeztu ostean, idazleari lehen galdera egiten dio Gabiriak, eta gero gainerako parte-hartzaileek hartzen dute txanda. Irakurle klub gehienetan badira dozena inguru lagun aski fidel, ia saio guztietan parte hartu ohi dutenak. Horiek ziurtatzen dute, neurri handi batean, ekimenaren jarraipena. Horien ondoan, horren maiz eta ziur agertzen ez diren parte-hartzaileak izaten dira.

Adinari dagokionez, oro har, 30 edo 35 urtetik gorakoak dira irakurleen klubetako parte-hartzaile gehientsuenak. Jende gazteagoarengana ez iritsi izanaren arantza du barruan sartua Gabiriak. Hasieratik saiatu arren, ez dugu gazteak erakartzerik lortu. Hori da gure penetako bat. Gazterik ez zetorrenez guregana, pentsatu genuen geu joatea Santutxuko Sorgintxuloko gaztetxera, saio paralelo bat egitera, baina ekimena abian jarri aurretik gaztetxea itxi egin zuten eta hor geratu zen asmoa.

IRAKURKETAREN BULTZATZAILEAK. Bakoitza bere aldetik dabilen jendea biltzeko balio dute irakurle klubetako saioek, Zalduaren ustez. Liburua irakurri ondoren, ez da beti izaten liburu bera irakurri duen beste norbaitekin komentatzeko aukera, eta klubak horretarako bidea ematen du. Horretaz aparte, jende askorentzat euskarazko irakurketan entrenatzeko lekua ere badira. 35 edo 40 urtetik gorako jende askok entrenamendu

gehiena erdaraz egin du orain arte, eta batzuen motibazioa euskarazko irakurketan trebatzea izaten da.

Irakurle klubak mintegiak dira, Zalduaren ustez, zentzu etimologikoan: irakurketa haziak. Txikiak dira, ez dute efektu izugarri zabalik, baina sinesten dut honelako gauza mikro-etan: liburua gustuko duenak ingurukoei kontatuko die, eta ahoz ahoko zabalkunde horrek badu bere eragina. Irakurleen klubek ez dute efektu izugarri zabalik, baina nik sinesten dut gauza ' mikro ' -etan

Iban Zaldua

Idazlea eta Gasteiz eta Arrasateko irakurle klubaren koordinatzailea
Liburuak hautatzean, gero eta sarriago jotzen ari naiz itzulpenetara, ikusi baitut oso erantzun ona dutela

Harkaitz Cano

Idazlea eta Donostia Kulturaren literatur solasaldien koordinatzailea
Jendeari eskatzen duena eman behar zaio, baina kalitatea bilatzen ahaleginduta

Julen Gabiria

Idazlea eta Asapala elkartearen Irakurlearen Tartearen moderatzailea